

# ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 25

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

maiatzak 26

## OPOSAKETAK

Dakizuenez, datorren larunbatean, maiatzaren 30ean, esleipenak egongo dira Eibarren, behean adierazten diren ordutegietan. Dena den, STEE-EILASetik gure desadostasuna adierazi nahi dugu Partzuergoak jokatzeko moduagatik.

Esleipen hauek nola izango ziren eztabaidatu dugunean, irizpide orokor batzuk tratatu ditugu eta inoiz ez, bakantedun plazak zelan banatuko ziren, hau dela eta, honen inguruan interpretazio ezberdinak egon dira eta azkenean, Partzuergoak gaia parekidera eraman gabe erabaki du egiteko modua.

STEE-EILASetik, hasieran, behin eta berriz eskatu genien haurreskola guztiak hustu eta esleipen handi bat egitea, justuena zela pentsatzen genuelako. Hau ezinezkoa zela ikusita, eta esleipenean zorteak eragina handia izango zuela ikusita, beti pentsatu dugu ahalik eta bakantedun kontratu gutxien apurtzen saiatu behar direla, langileentzat eta haurreskolentzat hobe delakoan.

Dena den, azkenean, eztabaidatzeko aukerarik ez dugu izan, eta oposaketaren esleipenean plaza bakoitza izen bati lotuta egongo da, beraz, edozein pertsonak plaza hori hartzen duen momentuan, beste bati bakantedun kontratua bukatuko zaio, nahiz eta haurreskola horretan plaza libreak geratu.

Maiatzaren 30ean, 4 txanda egongo dira eta esleipenean sartu ahal izateko gogoratu NANA, pasaporte... eraman behar dela. Aipatutako txandak ondorengoak dira:

HAUTAGAIAK	ESLEIPENAREN ORDUA	IKASTEGIKO ATEEN IREKIERA ORDUA
1etik 125era, biak barne	8,30	7'45
126tik 250era, biak barne	11,30	10'45
251tik 375era, biak barne	15'30	14'45
376tik 500era, biak barne	19'00	18'15

# ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 25

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

maiatzak 26

Kontuan izan, txanda bakoitzean interesatuak baino ezin direla sartu eta bere izena entzuterakoan **ozen esan beharko** du zein den bete gabe dauden lanpostuen artean aukeratu duen **haurreskolaren izena eta herria**. **Ondoren, mahaietara gerturatu** eta hautatutako lanpostua **sinatu** eta onartu beharko du.

Dena den, gu bertan egongo gara edozein beharra izanez gero, zuek laguntzeko prest.

Bukatzeko, aurten gaingitu ez dutenentzako gogoratu, 2. oposaketaren matrikula epea ekainaren 8tik 27ra izango dela eta materiala prestatzen, berritzen hasi garela, beraz, laster izango duzue berri.

Betiko moduan, Informazioa helaraziko dizuegu.

**ZORTE ONA GUZTIONTZAKO ETA ANIMO!**

---

ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C	01001 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbo	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org

---